

# P·02 Emakumeak Zientzian

01

## Kurtsoa/Maila

Lehen Hezkuntza

1. DBH
2. DBH
3. DBH
4. DBH

## Datak

Otsaila 2027

## Ikaskuntza-arloak

Biologia  
Fisika  
Geologia  
Kimika  
Kultura zientifikoa  
Lanbide-orientazioa  
Matematika  
Teknologia

## Hizkuntza

Gaztelania, Euskara, Ingelesa

## Irismen geografikoa

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa

## Erakunde sustatzailea

Ikusi akordioa sinatu erakundeen xehetasunak

Emakumeak Zientzian etengabe hazten ari den ekimena da, eta 2017an sortu zen, Nazio Batuen Batzar Nagusiak (2016) otsailaren 11 Emakumearen eta Neskatoaren Nazioarteko Eguna izendatu ondoren, emakumeek eta neskek zientzian erabateko eta bidezko parte-hartzea izan dezaten.

Programa horren bidez, egun horren inguruko jarduera-programa zabala sustatu, antolatu, garatu, aztertu eta gauzatu da, Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia- eta teknologia-sarea ordezkatzeko duten erakunde antolatzaileen bidez, lankidetzahitzarmen espezifiko bat sinatuta.

Iaz, 60 jarduera baino gehiagoko programa bat antolatu zen, adin guztietako jendearentzat (haurrak, nerabeak, familiak, eskolak, irakasleak, publiko orokorra, etab.).

## STEM Deskribatzaileak

STEM 2

STEM 4

STEM 5

STEM 6

## Baliabideak

### Baliabide materialak

Eskaintzen diren proposamen gehienak presentzialak dira. Streaming bidez egiten direnak egiteko, beharrezkoa da gela horretan ordenagailua eta proiektagailua izatea.

### Baliabide ekonomikoak

Ez dira behar.

### Informazio gehiago

[emakumeakzientzian.eus](http://emakumeakzientzian.eus)

## P·02 Emakumeak Zientzian

### HELBURUAK

Akordioa sinatu duten entitateek bat egiten dute ekimenaren helburuekin, eta konpromisoa hartzen dute gizarte osoari zuzendutako ekintzak antolatzeko:

- Haurren eta nerabeen artean zientzia-, teknologia-, ingeniari- eta matematika-arloetako bokazioak eta karrera profesionalak inspiratzea eta sustatzea.
- Jarduera zientifiko-teknologikoei esleitutako ohiko rol maskulinoak haustea.
- Gure inguruko emakumezko zientzialarien jarduera ikusaraztea.

### GARAPENA

#### Hasierako fasea

Irakurketa eta izen ematea.

- Urtarril inguruan argitaratzen da programa, aurrez aurreko eta/edo online formatuko jarduerekin, hala nola hitzaldiak, bisitak, tailerrak, etab. Ikastetxeek orduantxe eman ahal izango dute izena jardueretan.

#### Garapen fasea

- Jarduera irekiekin batera, Euskadiko ikastetxeek, besteak beste, "Eskolara itzultzea" jardueran parte hartzeko aukera dute. Jarduera hori 2026ko otsailaren 11ren inguruan egingo da.
- Jarduera honetan, ekimenari atxikitako ikerketa-zentroetako zientzialariak ikastetxeetara joaten dira beren lana ikasleei hurbiltzeko eta ikusarazteko, eta gaur egungo ikasleen artean bokazio zientifiko-teknologikoak pizteko.
- Zientzia nesken kontua dela ikusteaz gain, eta laborategietan eta zientziaren arloan emakumeen presentziarekin ohitzeaz gain, ikasleak STEAM diziplinetan

trebatuko dira, besteak beste, kimikan, biomaterialetan, nanozientzian, materialen zientzian, bioosasun-zientziaetan, fisika teorikoan, biologian, kriptografian, matematikan, neurozientzian eta ingeniarietan.

**Gutxi gorabeherako dedikazioa: 6 ordu (Urtarrila - Ekaina)**

#### Azken fasea

Ikasleek ikasitakoa gelan lantzen dute eta jarduera baloratuko dute.

**Gutxi gorabeherako dedikazioa: ordubete**

## P·02 Emakumeak Zientzian

### CURRICULUMAREKIN LOTURA

Emakumeak Zientzian programako jardueren bidez, honako gai hauei lotutako curriculum-edukiak lantzen dira:



#### Biologia / Geologia

- Lurraren eta ingurumenaren zientziak: klima aldaketa.
- Ekologia eta jasagarritasuna: aztarna ekologikoa, ekosistemak eta biodibertsitatea zaintzearen garrantzia.
- Ingurumen-hezkuntza. Eginkizunak eta helburuak. Garapen Iraunkorreko Helburuak.



#### Fisika / Kimika

- Oinarrizko gaitasun zientifikoak: ikerketa eta behaketaren bidez problemak ebazteko eta ikerketak garatzeko estrategien bidez egindako ikerketa proiektuak.
- Plataforma erradiokimiko baten funtzionamendua (isotopoen egonkortasuna. Erradioaktibitate naturala eta aplikazioak ingeniartzaren, teknologiaren eta osasunaren arloetan).
- Nanozientziaren definizioa eta jatorria eta naturako nanomaterialen adibideak.



#### Kultura zientifikoa

- Atzoko eta gaurko emakume zientzialariak.
- Euskadiko berrikuntza-zentroak. Euskal estrategia Europan 2021-2030, ZTBP 2030.
- Biomedikuntzaren gaur egungo garrantzia eta aplikazioak, ikerketa-metodoak eta printzipio etikoak.



#### Matematika

- Zentzu espaziala: eguneroko bizitzako egoerak grafo mota desberdinen bidez irudikatzea. Eulerren formula.
- Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala: ereduak eta eredu matematikoa.



#### Teknologia

- Programazioa eta hezkuntza-robotika: Micro:bit.
- Kriptografia Aplikatua: biltegiatutako informazioa, web aplikazioak, sistema eragileen segurtasuna eta hainbat plataformatan nola ezartzen den babestea.